

## 2012-2013 IKASTURTEA



**PARTAIDEAK:** JUBILATUEN ZENTROA, URDANETA IKASTETXEA ETA JAKINTZA IKASTOLA

LH 5-6 (40), LH2 (77), jubilatua (38-11 gizon)

**Norentzat:** Eguneko zentrokoentzako, haurren senideentzako, Goienetxekoentzako, komunitate osoarentzako

Gizonezkoak % 45 Emakumezkoak % 55

Hartzailearen adina: haurrak, helduak eta nagusiak

**DATA:** 2013ko martxoaren 11n

### **BALIABIDEAK:**

Giza baliabideak: zuzendariak eta abeslariak.

Materialak: musika tresnak, audio instalazioa, gela handia eta txikiak.

Difusioa: Jubilatuen zentroko eta Urdaneta barneko telebista programarako grabatzeko tresnak eta erreportariak.

### **BALORAZIOA:**

Esperientzia atsegina eta gustokoa izan da partaideentzako eta ikusleentzako.

Belaunaldien eta talde ezberdinen arteko esperientzia partekatua izan da eta honako helburu orokorrak landu ditugu:

- Esperientziak trukatzeko udalerriko talde desberdinen artean (bizi-etapa desberdinekoak eta funtzio anitzekoak), partaidetzaren bitartez pertsona gisa aberasteko.
- Zahartzaroko estereotipoak aldatzea. Umeei adinekoak ezagutu behar dituzte gizarteari ekarpenak eginez eta bertan aktiboki parte hartuz.
- Zahartzea bizitzaren ziklo eta prozesu gisa hartzea eta gaixotasunetik (mendekotasuna) bereiztea. Zahartzaroko bizitzaren ziklo jarraieraren barnean kokatzea.
- Helburu jakin baten alde lan egitea: euskal kulturari eta tradizioari eustea. Eguneko zentroko adineko pertsonak (mendekotasuna dutenak) eta Goienetxeko pertsonak festa-giroan murgildu, eta partaide bihurtu. Beste giza-errealitate batzuetan elkartasuna eta sentsibilitatea sustatzea.

Haurrek, Jubilatuen zentroko abesbatzako pertsona nagusiekin partekatu dute ekintza, Eguneko zentroko aiton-amonak eta Goienetxeako ikusle direlarik. Talde hauentzako ekintza berezia izan da, euren eguneko programatik kanpoko. Eta ekintza euskaraz izan da.

Ekintza hobeto antolatzeko eta koordinatzeko beharrezkoa da inplikaturako eragile guztien artean koordinazio bilera egitea ekintza aurretik.

Ebaluazio-orri bateratua egingo da hemendik aurrera.

### **HOBETZEKO PROPOSAMENAK:**

GITB gonbidatuko da grabazioa egiteko. Eta ezin badute erreportaria bidaliko zaie (bideoa edo argazkiak).

Ekintzan inplikaturako eragileen artean antolaketa eta koordinazio bilerak egingo dira, ekintza hobetzeko beharrezkoa delako. Ebaluazioa ere denon artean egingo da, bateratua.

Goienetxeako ere gonbidatuko ditugu bertan parte hartzera (ez bakarrik ikusle moduan).

Espazioa oso txikia geratzen da hainbat jenderentzako. Agian haur kopurua gutxitu daiteke.

### **OHARRAK:**

## 2014-2015 IKASTURTEA



**ARDURADUNA: ZUHAIZTI ZENTROA,  
URDANETA IKASTETXEA, JAKINTZA ETA GARAGUNEA**

**PARTAIDEAK:**

GARAGUNETIK 8 HELDU (5 EMAKUME ETA 3 GIZONEZKO)

**Eguna:** martxoak 11.

**BALIABIDEAK:**

GARAGUNEKOAK: Profesionalak

Antolaketa bilerak

**BALORAZIOA:**

GARAGUNEKOAK: Izugarri disfrutatu dute partaideek. Aurten "Ikusi mendizaleak" abestiaren entseguetan parte hartu dute, Urdaneta ikastetxean, eta musikaz disfrutatzeaz gain, honek aukera eman du ikastetxea ezagutu, eta haur eta irakasleekin hartu eman bat izateko.

Beraz, aurtengoan, partaidetza indartu egin da.

**HOBETZEKO PROPOSAMENAK:**

Posible balitz, garaguneko erabiltzaileen parte hartzea indartu, abesteaz gain, musika tresna bat jotzeko aukera emanaz

**OHARRAK:** Garagunekoek Hiri Hezitzaileen 3. printzipioarekin lotu dute ekintza.